

Euskara, hezkuntzarako tresna

Minorra

2023-2024 ikasturtea



Norentzat da minor hau?

- **Euskararen irakaskuntzan** interesa duenarentzat
- Euskarazko **baliabide digitalak** ezagutu eta baliatu nahi dituenarentzat
- Euskal **kultur ondarean** sakondu nahi duenarentzat
- Literaturaz **gozatzen eta gozarazten** ikasi nahi duenarentzat

ZER eskaintzen du minor honek?

- Izaera **praktikoa**:

- ✓ Eskolako errealitateari lotutako **proiektuak** (kasu errealetatik abiatuta)
- ✓ Euskarazko hezkuntzaren **gaur egungo erronkei** erantzuteko lanketa
- ✓ Literaturara eta liburuetara bide berrietatik gerturatzeko aukerak ezagutzea

- **Koherentzia** eta batasuna:

- ✓ Arlo batean sakontzeko aukera
- ✓ PIII, GRAL eta ikasgaien arteko lotura
- ✓ Irakasgaien arteko proiektuak elkar lanean



ZEIN IKASGAIK osatzen dute minorra?

- Ahozko euskal literatura
 - *Kenari Gomez*
- Eskola testuen tailerra
 - *Ane Odria*
- Haur eta gazte literatura
 - *Ibon Egaña*
- Hizkuntza eta teknologia: baliabideak
 - *Izaro Arroita*
- Irakurzaletasunaren sustapena
 - *Eider Rodriguez*



Ahozko euskal literatura

- ✘ Irakasgai honetan herri-literatura zertan den eta haren esparruak zein diren adierazten da.
- ✘ Herri-literatura osatzen duten generoak zein diren aditzera ematen da, eta herri-literaturako euskal testuak lantzen dira.



Ahozko tradizioa Euskal Herrian

Ahozko tradizioa munduan

Bertsolaritza

Historia. Haren onurak. Bizipen,
umore, gizarte-kritika, oroitzapen...
Sorkuntza: maisu-maistrak, bertsogile.

Herri-antzerkia

Jai. Erritu. Biziberritze.
Irri. Satira.

Baladak

Poesia. Istorio.
Historia. Gertakari

1. Herri-literatura: kontzeptua
2. Herri-literatura: generoak
3. Herri-literatura: testuak



Herri-ipuinak

Biltzaileak. Bildumak...
Maisu-maistrak, ipuin-
kantalari.

Koplak


Erritu. Ohitura. Jai-giro.
Dantza.

Genero txikiak

Haur jolasak. Sehaska kanta.
Igarkizunak. Zirtoak...

Eskola testuen tailerra

Irakasgai honen helburu nagusia eskola testuak sortzeko eta egokitzeko irizpideak ezagutzea eta trebetasunak garatzea da.



ZER

egingo da?

- ✓ Eskola testuen kalitatea eta egokitasuna kritikoki baloratu.
- ✓ Eskola testuak egokitzeko irizpideak eta estrategiak ezagutu.
- ✓ Testuinguru errealetan oinarrituta, eskola testuen egokitzapenaren eta sorkuntzaren bidez:
 - ✓ Euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza aniztasuna lantzeko proposamen didaktikoak diseinatu.
 - ✓ Ahozotasuna eta ikasgelako interkazioa sustatzeko proposamen didaktikoak diseinatu.

NOLA

egingo da?

- ✓ Ikasleen partaidetza eta sorkuntza ardatz
- ✓ Metodologia aktibo eta kooperatiboa: bakarkako eta taldeko proiektuak burutuko dira
- ✓ Eskola testuinguru jakinen araberako materialen egokitzapena eta proiektuen sorkuntza

Hizkuntza eta Teknologia: Baliabideak

- ✘ Teknologia berriek gure gizartean eta, zehazki, hezkuntzan duten eraginari buruzko ikuspegi kritikoa garatzea da irakasgai honen helburua.
- ✘ Euskaraz lan egiteko eskura ditugun baliabide teknologikoak aztertuko ditugu, eta gure ekarpena ere egingo dugu, IKTek eskaintzen diguten hainbat tresna erabilia.



ZER

egingo da?

- ✓ Irakasleen konpetentzia digitala garatzea.
- ✓ Hausnarketa egitea teknologia berriek hezkuntzaren alorrean sortzen dituzten erronkez, aukerez eta arriskuez.
- ✓ Euskaraz lan egiteko baliabide teknologikoak ezagutzea.
- ✓ Haur eta Lehen Hezkuntzako profesionalen roletik ekarpena egitea, ICTak baliabide gisa erabilia.

NOLA

egingo da?

- ✓ Banakako zein taldekako hausnarketa egin eskoletako errealitateaz eta ICTez.
- ✓ ICTak erabiliz proiektuak sortu.



Haur eta gazte literatura

- Atzoko eta gaurko haur eta gazte literaturako egile, obra eta joera nagusiak ezagutzea da ikasgai honen xedea.
- Askotariko generoak irakurriko eta aztertuko dira (narratiba, poesia, komikia, ilustrazioa...), eta gaur egungo joera eta eztabaidez hausnartuko da.



ZER

egingo da?

- ✓ Gaur egungo HGLko obra eta egile nagusiak ezagutu
- ✓ HGL-ren historia eta klasikoak ezagutu
- ✓ Liburuak kritikoki irakurri eta

NOLA

egingo da?

- Tertulia literarioak
- Sormen jarduerak
- Hausnarketa pertsonalak
- Taldeko proiektuak



Irakurzaletasunaren sustapena



Liburuetara emozioetatik iristeko bideak ezagutu

Irakurtzeko modu berriak ezagutu

Irakurzaletasunaren potentzialtasunaz eta balioaz hausnartu

Eskoletan irakurzaletasuna sustatzeko estrategiak ezagutu eta aplikatzen ikastea da ikasgai honen helburua.

Horretarako, irakasle izango zaretenon irakurzaletasuna lantzea izango da abiapuntua.

"Her own small bedroom now became her reading-room and there she would sit and read most afternoons... The books transported her into new worlds and introduced her to amazing people"



ZER

egingo da?

- ✓ Irakurzaletasuna sustatzeko teknika eta baliabideak ezagutu
- ✓ Literatura hezkuntzarako bitarteko gisa landu
- ✓ Irakurketaren dimentsio estetiko eta emozionalaz jabetu
- ✓ Askotariko liburuen irakurketan trebatu

NOLA

egingo da?

- ✓ Albumen irakurketa eta interpretazioa
- ✓ Irakurzaletasuna sustatzeko taldeko proiektuak sortu
- ✓ Eskolako errealitatea aztertu eta hobekuntza-proposamenak egin



Aurtengo ikasleen feedbacka

“Ikasgai interesgarriak eta irakasle izateko beharrezkoak. Eztabaida eta sormenaren bitartez, pentsamendua eta praktika uztartzeko aukera izan dugu.”

“Ahozko euskal tradizioa, eskola testuek izan duten bilakaera, teknologia baliabideen abantailak eta haur eta gazte literaturaren mundu zabala ezagutzeko aukera izateaz gain, aurtengo ikasturteak gaur egun irakurzaletasuna sustatzea ere zeinen garrantzitsua den ohartzeko balio izan dit. Euskara, euskal tradizioa, euskal kultura, irakurzaletasuna... transmititzeko irakasle batek ezinbestean behar dituen baliabide eta motibazioa eskuratu ditut minor honen bitartez”.



“Euskara hezkuntzarako tresna” minorrean, Irakurzaletasuna zein garrantzitsua den ikasi dugu eta baita ere, euskal kultura kontsumitzea zein garrantzitsua den. Gainera, haurtzaroan haurrei ipuinak kontatzea oinarrizkoa denez gero, hezkuntza on bat eman nahi badiegu, haur eta gazte literaturako kalitatezko liburuak ezagutu eta hautatzen jakiteko gaitasuna ere eskuratu dugu.



"Orokorrean esperientzia bikaina izan da, ez neukan inongo esperantzarik eta etorkizunean irakasle lanetan aritzeko baliogarria izango zaidala uste dut. Ikasitakoa:

-Haur eta gazte literaturaren oinarriak eta sail honetako liburuen inguruko ezagutza.

-Irakurgaien inguruko iritzi kritiko bat sortzeko gaitasuna.

-Ezagutzen ez nituen zenbait libururen nondik norakoa.

-Euskarak hezkuntzan duen garrantzia eta aldarri honen beharra.

-Jendaurrean hitz egiteko baliabideak."



Mila esker!
